

noaua

**Artobixar musika taldeari
elkarrizketa**

**Ostiral honetan, Markeliñe
Teatro Taldea Santuenean**

**Igandean Artikutzara
irteera**

Itxura berria hartzen ari da Aginaga



%100 bertako sagarra

**ONDO PASA
JAIETANI!**

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

KAMDEN

hizkuntzak

CONGRATULATIONS

**Cambridge University-ko
azterketa gainditzeagatik**

PET Eneko Irazabalbeitia
Iratxe Angulo
Maria Rivas
Nerea Telleria

FIRST Ander Guadix
Andoni Irastorza
Asier Mitxelena

English courses

Matrikulazio epea zabalik

www.kamdenhizkuntzak.com

Zubiaurrenea 6 · 943 37 14 02



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?

**DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H)
IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta
ERRAUSKETA-LABEEKIN**

ASEGURURIK EZ DUZUE?

**AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN
USURBILGO BEILATOKIA DOAN
FINANTZAKETA INTERESIK GABE
OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK**

Tel: 943.36.21.63

**BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BERREIRAKETAN
ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHORZKETA
ENPRENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN**

info@funerariagonzalez.es munalurra 8, Usurbil



OPILGOXO

ORDUTEGI BERRIA!!!

ASTELEHENETIK LARUNBATERA: 06:00-20:00

IGANDETAN: 06:00-14:00

**OKINDEGIA
KAFETEGIA**

943 37 45 95 KALE NAGUSIA 10, USURBIL

Albisteak iruditan

Ikusleak berriemale

Artista, kantante eta tunanteasko dabil-tza kezkatua aspaldian. Eskuko telefonoek ordezkatu dutelako publikoa. Eskentokira igo orduko, jendearen aurpegiak ordez telefono mobilak baino ez dituztela ikusten. Gerra galdua da. Eskuko telefonora pegatuta bizi garenetik, ekidin ezina. Badu alde onik. Garaiak aldatzen ari dira eta dagoeneko ikusleak ere berriemale dira. Ekitaldiaz gozatzeko ari diren bitartean, sare sozialen bitartez hedatzen dute ikusten ari direna. Dela argazki edo dela bideotxo baten bidez. Aldamenerako argazkian ikusiko duzuen moduan, ohitura hau ez da soilik gazte jendearena. Fan edo jarraitzaileen joera. Pasa den larunbatean, Zubietako 1813ko Akten Sinatzea antzeztan ari zirenean, halaxe harrapatu genituen hainbat. Tartean, Xabier Mikel Errekondo Amaiur-reko diputatua Kongresuan eta Ramon Gomez PPKo udal zinegotzia Donostian.



Instituzioetako ordezkariak eta hainbat politikari batu ziren Zubietan, 1813-2013 ekitaldiaren baitan.

Laburrean

1955 urtean jaiotakoan kinto afaria

Ohiturari jarraituz, aurten ere urriaren hirugarren larunbatean, urriak 19, 1955ean jaiotako usurbildarrek eta Usurbilen bizi direnek kinto afaria ospatuko dute. "Antxeta Jatetxean, afa-ri eder batekin solasaldi eder bat edukitzeko. Batzuk maiz ikusten garenak, baina baita urtean behin elkartzeko garenak ere". Bertaratu nahi duenak, izena emateko bi aukera ditu. Batetik posta bidez: 1955usurbil@gmail.com Bestetik Patxi Arrutiren telefono zenbakira deia eginez edo mezua luzatuz: 615 760 458.

Menpekotasuna dutenen zaintza-ikastaroa

Ikasturte hasiera da, ikastaro ezberdinak abiarazteko garaia. Usurbilgo Udaleko gizarte zerbitzuek badute eskaintzarik egiteko. Ikastaro honetan jorratuko diren gaiak hauek izango dira: menpekotasuna, gizarte zerbitzuetako baliabideak, legea eta etika, zaintzaileen zaintza eta laguntza teknikoak.

- Datak: irailak 11, 18, 25 eta urriak 2, 9.
- Orduetgia: 15:00-17:00.
- Non: Potxoenean.
- 943 371 110 telefono zenbakian.

Emakumeentzako ahalduentze ikastaro berria

Bideratzailea: Pepa Bojo psikologoa.

Hasiera: urriak 7.

Orduetgia: Ostegunero, 17:00-19:00 artean, yoga lekalean.

Izen ematea: doan, irailaren 2tik urriaren 2ra, 943 371 110 edo parekidetasuna@usurbil.net. Nori zuzendua: gai honetan interesa duten emakumei, norberaren ezagutzan sakondu nahi dutenei eta/edo egoera jakin batean komunikatzeko baliabide gehiago eduki nahi duten emakumei.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaia.com /// www.noaia.com
Jendaurreko orduetgia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaia.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaia.com:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Hasi da berriz...

Abuztua joan da, heldu da iraila. Hasi du euria, hasi dira presak, heldu da egunerokotasuna. Nola hasi dugu ikasturtea? Batzuk, erosketekin ekin dute. Hor-txe autoetatik bizikleta gainera jauzi egin duen Alonso eta Euskaltelen arteko ezkontza. Jabetzan nahi du talde laranja. Jabetzan nahi zuten igandean, Kontxako Bandera Bermeo eta Hondarribia aldean. Azkenean, halakoetan gertatu den moduan, banderarekin edo gabe, bakoitza bere herrian, denak garaile. Kontxan bizitako tentsioa baretzen laguntzeko atsedean hartzeko aukera izango dute

behintzat arraunlariek.

Gainerakoak, lanera edo ikastera. Denak ikasturte berriari ekitera. Baita epaitegietan ere. Udazken mugitua izango da. Beste behin, Madrilera joan etorrian ibiliko dira hainbat euskal herritar eta elkarreetako ordezkari, Aitzagakoak tartean. Egoera bidegabe gehiago geratuko dira, guztien begi bistan, oporrik gabe udan zehar lanean aritu diren Espainia aldeko auzitegietan. Lan karga ezin handiagoa dute. Ustezko "esku luze" koadrilako batzuk deklaratzeko ikusi ditugu. Egia esatera behartuak omen daude, baina inork ez daki ezer; nork

zenbat eraman duen, nork zekien, nor isildu den...

Denak karta jokoen, baina karta guztiak ondo gordeta, erakutsi nahi izan gabe. Eta norbaitek zer bait jakin go balu, parean duena errudun bihurtu eta lasai asko lo egitera. Esku luzeena nor izan den edota egungo egoera ekonomiko zailetik ateratzen ari garen edo ez. Inork iragarpen argirik ezin egin, baina halere egin nahian denbora xahutzen, ikasturte berri honen hasieran ere. Batzuk behintzat irailan "gainditzeko" utzitako arloek, bere horretan jarraitzen dute. Kateatzen. Ikasi behintzat batzuk,

askorik ez. Ezta iraganetik ere. Irakekoaren ostean, hamar urteren buruan, Estatu Batuek Siria dute jomugan orain. Eta hortik Suediako kazetari baten galdera ezin egokiago Obamari. Bakearen Nobel sari-dun bat, nola presta ote liteken Siria erasotzera. Maila bereko erantzunik ez zen izan presidentearen aldetik. Ez zen gehiago espero. Gerra hotsa beraz, gertu berriz ere.

Hau guztia, egunotan urduritasun handirik gabe hedabideetan irakurritakoa. Esku artean baitut neure "relaxing cup of café con leche". Baina etxekoa, "letxe txarrik" gabekoa.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Unai Agirre | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

200 urte atzera eginez

Hiria erre eta suntsitu zutela bi mende bete ziren abuztuaren 31n. Handik gutxira, hiria berreraikitzeke konpromisoa hartu zuten hainbat lagunek, Zubietan bildurik. Orain dela 200 urte bezalaxe, Zubietako Aizpurua baserria izan zen aurreko larunbateko protagonista. Hiria berreraikitzeke akten sinaketa antzestu zuten bertan Ados antzerki taldeko kideek. Kantariak eta musikariak girotu zuten ekitaldia. Euri-teak ez zuen lagundu baina baserriaren belazean ipini zuten karpan batu zirenak, sikiera, ekitaldiaz gozatzeko moduan izan ziren. Donostiaren esker ona erakusteko, sinatzailleen senideei Iñigo Aristegi artistaren "Korapiloak argituz" eskultura banatu zitzaizen.



Pasa den larunbatean, instituzioetako ordezkariak eta herritar ugari batu ziren Zubietako ekitaldian.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Usurbil Kirol Elkarteak, mende erdiko ospakizunetan



Atzoko eta gaurko adin desberdinetako jokalarik, entrenatzaile, elkarte kide bildu nahi dituzte, irailaren 16tik 22rako deitu dituzten hitzorduak. Suzirien jaurtiketak abiatuko duen astean zehar hainbat eskubaloitako neurketak jokatu dira. Herri bazkari batek emango dio amaiera, adi txartelen salmentari. Eta tartean, besteak beste, elkartearen mende erdiko ibilbidea jasoko duen liburua aurkeztuko dute jendaurrean. Irailaren 19an, 19:00etan Potxoenean.

Usurbil Kirol Elkartearen esker ona adierazteko liburua izan nahi du; mende erdi honetan bilgune honetako kide izan den oro omentzeko argitalpena. JJ Furundarena usurbildarra da, kaleratzearen den liburua berri honen egilea. Irakurlearen begi bistarako lan erakargarri bat osatu nahi izan du, lekukotza, irudi, bitxikeria eta datuen bidez. Dokumentazio lan handia dago atzean. Eskubaloiarekin lotura izan duten usurbildarren irudi bilduma zabala jaso du batetik (argazki erakusketa ere antolatu dute Sutegin). Kaleratu izan diren hainbat kronika. Lekukotzak... Guztia, eskubaloiak Usurbilen izan duen nagusitasunaren erakusle, eta herritik kanpo izan duen erreferentzialtasunaren adierazgarri.

Liburuaren aurkezpena, irailaren 19an

Badira atentzioa deituko duten hainbat kontu. Esate baterako, 1963an, elkarteak sortu berriaren eta garai hartako testuinguruan, emakumeen eskubaloitako jokalarik taldea izan zuela Usurbilek.

Edo eskubaloitako taldearen jatorrizko izena, ez dela Usurbil Kirol Elkarteak. 1963tik 1969ra arte Gaztedi izena zuen elkarte hark, orduko Garbi-Alai elkartearen baitako bilgunea zen.

Jokalarik bizipenak, elkartearen lorpenak eta irakurlearen entrenamenduko duten hainbat bitxikeria eta pasadizo. Askorako eman baitute 50 urteok. Horren erakusgarri, liburu honen abiapuntua izan eta Usurbil Kirol Elkartearen 50 urteotako ibilbidea zerbait adierazten duen datu sorta. Emaizta, ehunka jokalarik, zenbait ezina den palmaresa eta eskubaloiak Usurbilen utzitako arrasto sakona. Gehiago jakin nahi duenak, edota liburua eskuratu nahi duenak, hitzordua du irailaren 19an, 19:00etan Potxoenean.

Herri-bazkaria, irailaren 22an

- Helduak: 20 euro. 13 urte arteko haurrek: 12.
- Txartelak: Bordatxon eta Aitzagan salgai. Hona konturen batean ordainketa edo transferentzia egitearen agiria ere baliozkoa da: BBVA: 0182 6043 27 0201505790. Rural Kutxa: 3008 0259 11 2038715328. Kutxabank: 2095 5069 02 1061099122.
- Menua: Eusko Label tomate entsalada. Otarrainxa egosiak. Eusko Label hegaluzea parrilan. Txerri kostila parrilan. Limoizko sorbetea cavarekin. Kafea, patxarana eta likoreak. Edariak: txotxeko sagardoa, Errioxako ardoa eta ura.
- Oharra: urteurreneko kamisetak eta urteurreneko liburua salgai.

Egitaraua

Irailak 16, astelehena

18:30 Suzirien jaurtiketa Santuenean, frontoian eta Oiardo Kiroldegian, Usurbil Kirol Elkartearen 50. urteurrena ospatuz.

18:30 Eskola-kiroleko eskubaloitako neurketak frontoian.

Irailak 17, asteartea

16:00 Eskola-kiroleko neurketak frontoian.

Irailak 18, asteazkena

17:30 Kadete/jubenil nesken neurketa Santuenean.

18:30 Kadete/jubenil mutilen neurketa Santuenean.

Irailak 19, osteguna

19:00 50. urteurreneko liburuaren aurkezpena Potxoenean.

Irailak 20, ostirala

18:30 Kadete/jubenil mutilen neurketa frontoian.

19:30 Kadete/jubenil nesken neurketa frontoian.

Irailak 21, larunbata

11:00 Eskola kiroleko neurketa frontoian.

12:00 Eskola kiroleko neurketa frontoian.

17:00 2. territorialeko taldearen neurketa Oiardon.

18:30 Senior nesken neurketa Oiardon.

20:00 2. nazionalekoen neurketa Oiardon.

Irailak 22, igandea

10:00 Belaunaldi desberdinetako beteranoren neurketak Oiardo Kiroldegian.

11:00 Argazki erakusketa eta bideo emanaldia egun osoan zehar.

12:00 Elkarteko hildakoen omenezko meza.

14:30 Herri-bazkaria frontoian.

Irailaren 16tik 21era: Argazki erakusketa Sutegin. Astelehenetik ostiralera: 19:00-21:00. Larunbatean: 12:00-14:00/18:00-21:00. Antolatzailea: Usurbil Kirol Elkarteak.

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

WHEEL AKADEMIA

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa • Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak • Hizkuntzak

629944690

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L

teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Helduentzako formazio eskaintzan, matrikulazioa zabalik

Eskola graduatua atera, hizkuntzetan trebatu, edota unibertsitate zein goi mailako ziklo-etara sartzeko proba prestatzeko aukera emango dute beste behin, Usurbil eta Lasarte-Oriako EPA-HHI-tik. Prest dute, 2013-2014 ikasturtea, Agerialde eraikinean egoitza duten heziketa eskaintzakoek. "Eskolak" ostiral honetan, irailaren 13an abiatzekoak dituzte.



18 urtetik gorako herritarrek eman dezakete izena.

Graduondoko eta sarbide frogak prestatu edota tailerretan apuntatu nahi dituztenentzako matrikulazio epea irekia dago jada. Matrikulatzeko ordutegia, honako hau duzue (Agerialden):

-Astelehenetik ostiralera: 11:00-13:00.

-Astelehenetik ostegunera: 17:00-19:00.

Aurtengorako eskaintza ardatz hauen bueltan bildu dute, 18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako hezkuntza eskaintzen duten EPA-ko kideek.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA:
-DBH-ko eskola graduatua: 4

hilabeteko ikastaroak (hasiera irailean eta otsailean).

-Oinarrizko kultur formakuntza.

-Irakurketa, idazketa eta kalkuluan hastapena.

UNIBERTSITATE ETA GOI ZIKLOETARA SARBIDEA:

-Unibertsitatean sartzeko 25 eta 45 urte artekoentzako hautafroga prestatzea.

-Goi zikloetarako A eta C aukeren prestatzea.

ETORKINENTZAKO PROGRAMA:

-Gaztelania.
-Oinarrizko prestatuntza.

PROGRAMA IREKIAK:

-Frantsesa, ingelesa, euskara... hastapenak.

-Oinarrizko informatika.

-Elikadura.

-Literatur tertulia dialogikoa.

-Artea.

EKINTZA OSAGARRIAK:

-Antzerkia, pilates, gimnasia... LAN eta LAN ikasle eta ikasle ohien elkarteak antolatutik...

MINTZAPRAKTIKA

Iaz bezala gainera, aurren ere, ingeleseko mintza praktika egiteko aukera egongo dela berri eman dute EPA-tik. Hemen ere, bada non aukeratua beraz.



Antzerki klaseak jasotzeko aukera

Ixabel Agirresarobek antzerkia egiteko klaseak ematen ditu. Antzerkia egiten ikasi nahi duenak, beraz, deitu diezaiola 675 71 23 83 telefono zenbakira. Edo bidali dezala email bat honako helbidera:

ixabel.agirresarobe@gmail.com

Katekesi taldeetan izena emateko epea ireki da

Usurbilgo Salvatore Parrokiako katekesi taldeetan izena emateko egunak hauek izango dira: Irailaren 17an eta 18an 17:00etatik 19:00etara Parrokiako bulegoetan. Gurasoak bertaratzeara komeniko litzateke.

Kontserbak egiteko ikastaroa

Usurbiltzenek antolatu du irailaren 28rako, 10:30etan Agerialdeko sukaldetan. Ikastaroan izen emateko epea, hilaren 23tik 27rako izango da. Apuntatzeko bide daude: 699 472 020 (Josu) edo email bat idatziz usurbiltzen@gmail.com. Ordaindu beharreko kopurua, 10 euro. Langabetu eta ikasleek, borondatea.

Gutun soziala osatzeko batzarra, irailaren 18an

Iragan asteartean, irailaren 10ean burutuko zela iragarri genuen aurreko aldizkarian. Baina asteazkenean, hilaren 18an egingo da, aurreikusitako ordu

eta lekuan; arratsaldeko 19:00etatik aurrera Potxoenean. Euskal Herriko Oinarrizko Eskubideen Gutuna osatzeko prozesuaren baitan antolatu

da bigarren batzar ireki hau. Lehena, uztailan egin zen. Antolatzaileek herritarrei hitzordura bertaratzeko gonbita luzatzen diete.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

izagirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Legegintzaldiko lehen bi urteen balorazioa

BALANTZEA AURKEZTU ETA ETORKIZUNEN ASMAREN BERRI EMANGO DUTE HERRI BATZARREAN

Potxoenean uztailean eginiko bi batzarren ostean eta 2011-2015 legegintzaldia erdibidera heldu den honetan, lehen bi urteotako balantzea aurkeztuko du jendaurrean EH Bilduk, astelehenean, irailaren 16an, 19:00etan Potxoenean.

Uztaileko batzarretan landutakoaren berri jasotzeko aukera egongo da bertan. Aurreko batzarretan hain zuzen, Usurbilgo EH Bilduren web orrialdeak jasotzen duenez, "bi urte hauetako bilakaera, herri programaren garapena, martxan jarri diren egitasmoen balorazioa, arlo bakoitzean aurrera eraman diren egitasmoen identifikazioa, hutsuneak,... aztertu ziren".

Legegintzaldi honetako lehen zatia loturiko balorazio labor bat eskaintzen du koalizioaren atariak. EH Bildurentzat ardatzak izan diren zenbait kontzeptu hain zuzen. Gertutasuna eta gardentasuna esaterako. Erabakiak herritarrekin batera hartzeko eginiko ahalegina da baloratzen duten beste alderdietako bat. Ezin ahaztu krisialdi ekonomikoak baldintzuriko garaia dela. Ondorioz, bi urteotan, "behar beharrezkoak diren egitasmoei heltzea" izan da gobernu taldearen lehentasunetako bat. Premiazko hirigintza obrak egin, edota gizarte zerbitzu eta laguntzak bere horretan mantendu dituela adierazi du EH Bilduk.

Hirigintzako Plan Orokorren diseinua, datorren erronka

Iraganari soilik ez, aurrera begirako lan ildoak ere aurkeztu nahi dituzte batzar berean, EH Bilduko kideek. Abiatzear dugun ikasturte berri honetan, titular bat baino gehiago emango digun Usurbilgo Hirigintzako Plan Orokorra diseinatzeari ekingo baitio Udalak. Bakarrik ez noski, herritarrekin batera. Iragarri dutenez, "erabaki horretan usurbildarren parte hartzea behar beharrezkoa izango da". Etorkizuneko udalerrria diseinatuko baita. "Plan Orokorra sekulako garrantzia du, suposatzen baitu Usurbil



Bildu eta Aralarreko udal zinegotziak izango dira irailaren 16ko herri batzarrean.

bilek baduela tresna bat bere etorkizuna eratzeko", diote EH Bildutik.

Ehundaka bilera talde eta norbanakoekin

"Politika ezkertiar eta abertzalearen aldeko apustua egingo genuela aurreratu genuen duela bi urte. Eta, gainera, Udaletxeko ateak herritar guztiei irekita egongo zirela esan genuen. Bi urte hauetan zinegotzi eta alkateak ehundaka bilera izan dituzte talde eta norbanakoekin eta hitzordua eskatu duen pertsona guztiek erantzuna jaso dute", EH Bilduk ziurtatzen duenez.

Gainontzeko udal taldeekin informazioa partekatzeko ahalegina

Gardentasuna da koalizioaren beste kezka nagusia. "Udal talde guztiek jasotzen dute Udaletxean erregistratzen diren sarrera eta irteera guztien informazioa. Era berean, dekretu guztien kopiak banatzen zaizkie astero".

EH Bilduk legegintzaldi honetako lehen bi urteen inguruan eginiko balantzearen zehaztasun gehiago hemen topatuko duzue: <http://usurbil.ehbildu.net> helbidean

"Herritarrengatik gertu"

"Legegintzaldiaren hasieran esan genuen herritarrengatik gertu arituko ginela lanean", hala dio koalizioak NOAUA!ra igorri duen txostenean. "Auzoz auzoko errondak eginez, aurrekontuak azaldu ditugu urtero eta egitasmo bereziak ere jendaurrean jarri ditugu batzar irekietan. Horrela egin dugu, besteak beste, erdiguneko Bidegorrien Plangintza aurkeztu genuenean, Hezkuntzako prozesu partehartzailean, Ucin-en isurketen inguruko informazioa plazaratuz edo Aginagako plazaren proiektua aurrera eramateko orduan". Usurbil herri dinamiko eta parte hartzailea dela dio EH Bilduk, baina "hala ere, asko dugu hobetzeko eta partehartzea bultzatzeko ahaleginetan saiakera bereziak egiteko asmoa dugu. Honela, ikasturte hasiera honetan herri batzar bat egin nahi dugu herritar guztiekin bi urte hauetako balantzea egin eta aurrera begirako lan ildoak azaldu eta eztabaidatzeko". Batzar hori irailaren 16an izango da, 19:00etan Potxoenean.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL

© 663 08 76 71 • 943 24 34 65

TAXI
24 h
USURBILEN

677 37 34 66 | Joxe
943 36 21 78 | Etxabe

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

Artobixar, showa ematera Santuenera

EH SUKARRAREKIN BATERA ARITUKO DIRA DATORREN ASTEAN, SANTUENENKO FESTETAN

Ander Osa (abeslaria), Endika Larrañaga (gitarra), Herri Harto (baxua), Mikel Romero (bateria) eta Jon Ander Bruño (gitarra) dira datozen lerrootako protagonistak. Duela hiru urte sorturiko musika talde bateko kideak dituzue. Kale Nagusian duten gunean biltzen dira, duten zaletasuna lantzeko. Musika taldearen izena historiara jota hautatu dute; "Gerra Zibilean tabakorik ez zutenez, artobixarra erretzen zuten. Atentzioa deitzeko, antitabakalerarena egiteko eta grazia egin zigunez, izen hori jartzea erabaki genuen". Eta musikalki, punk-a heldu aurreko garaian kokatzen dira. Showa eman zaleak, boskoteak Santueneako jaietan parte hartuko du irailaren 20an, EH Sukarrak eskainiko duen emanaldiaren aurretik. Gero, Usurbildik kanpo kontzertu birari ekitekoak dira. Zuekin, Artobixar taldea.

Koadrilan sortu duzue taldea? Artobixar. Gehienak koadrilakoak gara. Ondo pasa eta gozatzeko talde bat osatu nahi genuen. Bateria falta zitzaigun. Hasi ginen bila eta azkenean Romero bilatu genuen.

Taldea osatzeko bidea erraza egin zitzaizuen?

Egia esan, bateri jolea aurkitzea kostatu zitzaigun. Beste herrietara deitzen, eskaerak bidaltzen aritu ginen. Baina ez genuen ezer finkorik aurkitzen. Kontzertu bat ere eman genuen bateri jolerik gabe, frontoian. Ikastola Egun batean izan zen. Gainera, denak gure kantak ziren. Batean gure baxuak ez zekien abestia, akatsak izan genituen. Baina ondo pasa genuen eta hori da garrantzitsuena. Azkenean, Usur-



"Letra gehienak jendeari interesa piztuko dioten aldarrikapenak dira"

Duela hiru urte osatu zuten Artobixar taldea.

bilgo bateri jolea bilatu genuen. Herrikoa izanik, askoz hobeto.

Proba moduko hau beraz, taldea aurrera ateratzeko motibagarria izan zen?

Hortik bateri jole eta guzti, kontzertu ofiziala Aginagan eskaini genuen. Handik gustura ateratu ginen. Aginagan gainera gogoia zegoen gu ikusteko. Jendea azaldu zen. Entzuna izan zen. Kamisetak ateratu ziren, kontzertuak marea gorria zirudien. Ilusioa egiten du horrek.

Ordurako abestiak sortuak izango zenituzten noski?

Askori sortu ditugu. Artobixar sortu aurretik, taldeko gitarri joleak arratsaldetan geratu eta kantak sortzen aritzen ginen. Orain ere sortzen ari gara.

Kanten letrek zer diote?

Gehienak jendeari interesa piztuko dioten aldarrikapenak dira. Gauza onak, jendearengan xarma, interesa sortzen dutenak, ondo pasatzeko.

"Berehala aspertzen gara sortutako abestiekin"

Sortzea gustukoa duzue halere? Artobixar. Sortzea bai, baina kantei zerbait faltatzen zaie. Ia onak ateratzen diren. Gainera, berehala aspertzen gara sortutako abestiekin.

Kontzertu bat aurrez prestatzekoak, edo emanaldian inprobisatu zaleak zarete?

Kontzertu baten ostean, hurrengorari begira kanta batzuk oso aberatsak izan direla ikusi badugu, mantentzen ditugu, edo berriak sartu errepikatu ditugun ordez. Showa ematea, jendea erakartzea gustuko dugu.

Kalezartik adibidez gustura ateratu ginen, bengalak erosi genituen. Jendea gustura ateratu zen. Santue-

nearako zerbait prestatu beharko dugu. Pentsatzen ari gara, baina zaila dago.

Showa emate horretan ere maila igo nahiko duzue?

Bai noski. Gehiagi emozionatu ginen Kalezarren. Baina Santuenerako ere zerbait prestatu beharko dugu.

“Kanpora joan eta taldea ezagutzera eman nahi dugu”

Entsegu lekua beste bi talderekin partekatzen duzue. Zuen inguruan badabil jendea musikaren bueltan?

Artobixar. Uste baino gehiago. Geroz eta talde gehiago ari dira sortzen. Jendea gustura ikusten da.

Musika talde batek zer beste talde entzuten ditu?

Oi musika. Hemen ez da asko entzuten. Jendea etorri izan zaigu esanez taldeok entzungabe zituztela eta entzuten hasi direla esatera. Oi zaharrak, punk-a ere entzuten dugu. Abestiak hautatzerakoan biak nahasten dugu, oi eta punk. Musika sortzerakoan nahiko ados egoten gara.

Oi musika?

Galtzen doa. Irudi txarra du, skin mugimendurekin duen lotura dela eta. Baina lehenengo skin mugimendua ez zen halakoa. Ez zen faxista, arrazakeriaren aurkakoa zen. Punka iritsi aurreko garai horretara joan nahi dugu, erakusteko skin mugimendua ez dela faxista.

Santuenean emanaldia duzue laster, leku gehiagotara mugitzekoak zarete ordea?

Herrian jo izan dugu orain arte; Gaztetxean, Aginagan, Akerran, bertsio gauetan parte hartu dugu. Orain kanpora joan eta taldea ezagutzera eman nahi dugu. Zestoan lagun batek esan zigun han lagun batzuk zituela kontzertuak antolatzen dituztenak. Hara goaz eta Arrasateko emanaldiaren konfirmazioa falta zaigu.

Taldearentzat beste pausobat, kanpoan ezagutzera ematea?

Erronka berria da guretzat.



“Errotondan artoa landatzen ari dira, ez dakigu gu iragartzeko izango ote den”

Oilotegi batean entseatzuten dute Artobixar taldekoek.

Beldur pixka bat ere ematen du ia hango jendeak nola hartuko duen. Ia koadrila eta Usurbilgo jendea animatzen den. Etxekoak kanpoan ikustea lagungarria da. Ez baitakizu han zer harrera izango duzun.

Santuenearen kasuan EH Sukarraren “telonero” lana egitea egokitu zaizue. Nola hartu duzue?

EH Sukarra ez da gure estiloko musika taldea, baina izen handia du. Guretzat ohore bat izango da. Santueneako Jai Batzordeari eskerrak eman nahi dizkiogu. EH Sukarrak jendea mugituko du eta guri, taldea ezagutzera emateko aukera emango digu.

Nor gonbidatu nahi zenukete kontzertura?

Betiko jendea, gure koadrila, herriko jendea joateko, giro ona egongo dela, ondo pasako dugula.

“URRUTI IKUSTEN DUGU LEHEN LANA”

Talde berriak sortzen ari dira?

Orain osatzen ari diren talde guztiak, beraien kasa ari dira lokalak bilatzen. Udaletxeak ez du lekurik denei lokala emateko. Gu garajeon hasi ginen jotzen, kexak izaten genituen. Orain Kale Nagusian gaude, estilo polita du gure honek eta gustura gabiltza. Hiru talde gaude, eta gure artean antolatzen ari gara. Jendea animatu nahi genuke taldeak osatzera, eta bizirik jarrai dezala musika zaletasunak Usurbilen. Jakin dugunez, errotondan artoa landatzen ari dira, ez dakigu gu iragartzeko izango ote den.

Lehenengo lana noizko nahi zenukete?

Lehen lana guk ekoiztea pentsatu genuen. Ordenagailu batean, CD batean abestiak jaso eta banatzeko. Hori urruti ikusten dugu ordea, egitea ere zaila da. Ia zerbait ateratzen zaigun.

Santueneko Jaiak 2013, egitaraua

Irailak 20, ostirala

17:00 Txupinazoa txosna aurrean eta txokolatada Tragokan. Ondoren globo gerra.

18:30 Buruhandiak eta txaranga.

19:00 Sardin jana.

23:00 Kontzertuak: Artobixar, EH Sukarra eta Joxpa.

Irailak 21, larunbata

11:00 Haur jolasak eta pintura lehiaketa.

13:00 Buruhandiak.

14:00 Haur bazkaria (Norberak bere bazkaria ekarri eta edariak eta postrea bertan banatuko dira).

16:00 Mus txapelketa (15:30-16:00 izen ematea).

16:00 Haurrentzako puzgarriak. 17:30 Txokolatada Zaharren Egoitzan.

19:00 Buruhandiak.

20:30 Kantu afaria Josune Aranbururekin.

00:00 DJ Van.

Irailak 22, igandea

11:00 Toka txapelketa.

12:00 Hamaiketako txosnan.

14:00 Herri bazkaria.

18:00 Hipo eta Tomax pailazoak.

Ondoren buruhandiak.

19:30 Piper dastaketa.

21:00 Festen amaierako traka.

Herri afari eta bazkaritarako txartelak salgai

Santueneako jaietan, auzotarrak nahiz hara joandakoak mahai bueltan biltzeko aukera izango dute bitan; Josune Aranburuk girotuko duen irailaren 21eko herri-afarian eta biharamunean ospatuko den herri bazkarian. Otordu batera zein bestera joan asmo dutenek, txartelak aldeztu aurretik erosi beharko dituzte. Salgai egongo dira, Santueneako zaharren egoitzan, Ibai Ondo Elkartearen eta Santuenea Elkartearen.

Oinezkoek lehentasuna izango dute Aginagako erdigune berrian

Eliza zaharra bakarrik ez, Aginagako erdiguneak ere itxura berri-tua du. Aurrerantzean, oinezkoek izango dute lehentasuna aipatu eraikineraino, frontoira jaitsi edota zahar egoitza aldera jotzeko. Autoek aldiz, mugatua izango dute pilotalekua inguratzen duen bitetik barrena egin dezaketen joan etorria. Baita abiadura ere, ezingo baitute gainditu 10 kilometro orduko muga. Hala gogorarazten dute lurzoruan margoturiko eta frontoi ondoran jarri dituzten seinaleek. Gainera, Arrate zahar egoitza pareko ibilgailuen trafikoa piboteekin mugatu dute.

Baina badira aldaketa gehiago ere. Lurzorua ere berri dute, zenbait lekutan puskatua baitzegoen. Eta bada begi bistako beste aldaketarik ere. Orain arte, Aginagako herri ikastetxe atariko plazatxoan zegoen haur parkea lekuz aldatu baitute. Frontoi atzean du kokagune berria.

Eskalatzeko aukera ematen duen jolasleku edo tramankulu bat erantsi diote gainera, eta hesiekin babestua egongo da



Haur parkea lekuz aldatu dute. Horretarako, frontoi atzeko eskenatokia behera bota dute

Jolastokia tokiz aldatzeaz gain, jolas berriekin hornitu dute.

aurre-
rantzean.

Haur parkea lekuz aldatu ahal izateko, erabiltzen ez zen pilotalekuko atzealde horretan zegoen eskenatokia behera bota behar izan dute.

ETORKIZUNEKO ERRONKA, ERDIGUNEA OINEZKOENA IZATEA

Uztailaren 8an hasitako lanak

garaiz amaitu dituzte. Aginagako Herri Ikastetxean 2013-2014 ikasturte berria abiatzen zutenerako erdigunea prest nahi zuen Udalak. Obrak amaitzeko epea, bistan denez, garaiz bete dute. Altuna y Uria enpresak bideraturiko obrek iraun duten artean itxita egon ostean, guztiz zabalik da berri pilotalekua inguratzen duen pasabidea.

Hala ere, etorkizunari begira, egin diren lanetatik haratago joateko asmoak hor jarraitzen du. Erronka, Aginagako erdigunea guztiz oinezkoentzat izatea litzateke. Eta ibilgailuak, mugatua duten egungo pasabidea izan ordez, frontoiko ezker horma atzealdetik igarotzea. Horiek ordea, aurrerago aztertu beharreko kon-tuak izango dira.

Bi norabideetako da frontoi ondoko bidea

Abuztuan bukatu zituzten lanak. Dagoeneko herritarrak hasi dira egin diren aldaketetara ohitzen. 10eko abidurara, eta pibote berrietara. Lehen aldiz jarri zirenean piboteak, ez zuen bi autoentzako tokirik ematen. Baina garaiz moldatu zituzten piboteen kokapenak eta horri esker autoen trafikoa erraztu egin da.

Ez da arazorik izan lehen aste hauetan. Akaso estetikoak izan da sortu den eztabaida. Hainbeste piboteen presentzia. Baina denborarekin, ohitzen ere joan dira.

Auzolana, baita parkean ere
Eliza Zaharraz baino ez da hitz egin (ETB2ko "Euskadi Directo" saiokoak ere bertan izan ziren,

lanen berri ematen). Baina ez da auzolanean egin den gauza bakarra izan. Jolasleku berriaren ondoran dauden bankuak barnizatu dira, baita kolunpioak ere.

Tokiz aldatzeaz gain, jolas berriekin hornitu dute parkea. Orain ipini diren modulu berriekin, 6 urteko haurrek ere parkeaz gozatzeko aukera dute.



Auzolanean eraberrituriko Eliza Zaharra, San Praixkuetarako prest

Irailaren 28an, hilabete honetako azken larunbatean inauguratuko dute Aginagako eliza zaharra. Hobe esanda, eliza eraberritua. Horretan, eraikina berritzen, txukuntzen, eta garai bateko egitura bistaritzen aritu baitira auzolanean aginagarriak. Erdiguneko ondarearen zati bat berreskuratzen dihardute, ez bakarrik jaietarako, baita urtean zehar bestelako erabilpena emateko ere. Eskuz eginiko lanaren emaitza eza-gutzeko gonbita luzatua dute Aginagatik: “Etorri eta ikusi, oso polita geratzen ari da”. Auzolan esperientzia hau zer nolakoa izaten ari den azaldu digu, bertan lanean dabilen aginagar batek.



“Bazterrak pixka bat txukuntzea baino ez da falta”.

Zenbat lagun zabilzate auzolanean?

Iban Arruti Bengoetxea. Denera 20 bat lagun. Baina txandaka sei zazpi bat lagun eguneko. Azkenean, kontu izan, ikasle edo langileak garelako denak, bakoitza ahal den moduan aritzen dela auzolanean.

Urte hasieran hasita, San Praixkuetarako amaitu nahi zenukete?

Otsailean hasi ginen. Inaugurazioa iraileko azken larunbatean egin nahi genuke. Ahal bada, festetarako erabili nahi genuke. Aurrera begira, beste hainbat proiektu ditugu, baina

horiek proiektu potoloak direnez, denboraren eta diruaren arabera ikusiko dugu nola gauzatu.

Iban Arruti:
“20 bat lagun aritu gara lanean. Txandaka, sei zazpi lagun eguneko”

Zer egoeratan daude lanak? Amaieratik gertu?

Lehen horma hormigoiko zahar batekin zegoen, eta dena erortzen zen. Musikarekin asko erori egiten zen, arriskutsu zegoen. Dena pikatu egiten dugu. Lehengo harri zaharra bistara ateratu dugu. Hormak denak bukatuta daude. Bazterrak pixka bat txukuntzea falta da.

Lehen bi leiho baino ez zeuden eta gainerakoa estalita zegoen. Orain leiho guztiak irekitzen ari gara, argia sartzeko. Barruko oinarria amaituta dago. Detalleak konpontzea falta da.

“HARRIA BISTARATU NAHI GENUEN”

Lan hauekin ere, jatorrizko egitura ere berreskuratu nahi izan duzue?

Garrantzitsuena, harria bistaratu nahi genuen. Baita leihoak ere. Sakristiako bobeda oso zaharra zegoen, zatiak erori egiten ziren. Horretan ere lanean aritu gara.

“Jendea laguntzeko prest dagoela ikustea pozgarria da”

Berreskuratze lanetan, ezustekoak ere izaten dira. Baita zuen kasuan ere?

Iban Arruti Bengoetxea. Ezusteko handienetako bat, bi zulo aurkitu ditugula. Lehen masarekin estaliak zeuden eta ez zen ezer ikusten. Pixka bat pikatzen hasi gara, eta garai batean, santuak kokatzeko baliatzen ziren zuloak direla ohartu gara. Txukundu eta bistaratu nahi dugu behintzat. Harria nahiko berdina dela

dirudi, baina zenbait lekutan desberdin dago, erortzeagatik. Eroritakoa beste harri mota batekin ordezkatu zuten.

Eta ezustekoa izan genuen horrekin ere. Sabaia ez da berezko elizarena, hau geroago egin zuten. Dena erori zen eta. Elizaren egiturak ze bilakaera izan duen ikustea polita da.

Aginagarriak zabilzate lanean.

Zer moduzko esperientzia izaten ari da auzolanean jardutea?

Oso polita. Halako herri txiki batean jendea mugitzen dela eta laguntzeko prest dagoela ikustea pozgarria da. Oso esperientzia aberasgarria izan da. Ez genuen espero jendea mugitzea ideia honekin. Hasi-eran gutxi batzuk ginen ideia horrekin, gerora ikusi dugu jendea nola mugitu den. Probatzeko moduko esperientzia polita.

“Esperientziak merezi izan du”

Aurreko urteetako erabilera eman asmo diozue datozen jaietan?

Iban Arruti. Hasiera batean ideia horrekin egin zen, jaietan erabiltzeko. Baina gero, pena ematen digu urtean zehar erabilpenik ez emateak. Horregatik, ahal bada behintzat urtean zehar erabilpenen bat eman nahi genioke. Edonork erabil dezake, leku publikoa baita.

Kanpotik lehen aldiz eliza eraberritua ikustera datorrenaren tokian ipiniko gara. Eraikina nola begiratzea nahiko zenukete?

Aurrerantzean behintzat nahi duguna da, leku seguru bat izatea. Lehen genuen baldintzetan ez zen leku segurua; sabaitik itoginak... Leku bat nahi dugu afariak egiteko, erabilpena emateko.



Irailaren 28an egingo da Eliza Zaharraren inaugurazioa.

Eta jendeak garai batean Aginagak ze eliza zuen ikustea nahi genuke. Akaso ez oso handia, baina guretzat oso berezia da.

Oraintxe bertan, Aginaga denaren sinboloetako bat da, eta hori nabarmentzea da gure helburua.

Inauguraziorako ze lan falta zaizkizue?

Helburu nagusia leihoak amaitzea da. Dena txukundu, hormak pintatu berriz, mural batekin margotu... Gehiena eginga dago. Festetarako bukatu nahi genuke. Ia jendeak zer dioen, ia gustura geratzen di-

ren. Bestalde, eliza atzealdean beste sarrera bat egin nahi genuke, festetarako adibidez larrialdietarako sarrera bat izatea, arraska txukundu, komuna izatea ahal bada. Aurrerago jada, diruaren arabera, lehenagoko abesbatza zena egokitu nahi genuke.

“SAKRIFIZIOA ERE BADA AZKENEAN”

Esperientzia honen ostean auzolan kontzeptuak ze esan nahi du zuentzat?

Oso hitz polita da. Baina azkenean sakrifizioa da. Kosta egingen da, astean zehar lanean egon eta asteburuan goizeko zazpitan lanera etortzea. Konpromisoa eta giro ona ere bai. Auzolana, inguruko jendea ondo eramaten den seinalea da azkenean. Esperientziak merezi izan du.

GOLDWELL ELUMEN

ile apaindegi

mistoa

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4. ☎ 943 361 951

antenas Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen. Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

t d t

elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenas telemar.com

1 VEO cuatro 5 MIRENDA 6 ANTENA 3 etb 8 DIGITAL+

2 BET-VEO 3 CM+ FDP 4 ANTENA 2 etb 9 tele donosti

7 la siete

8 clab 9 la sexta 10 hogor 10 etb

Hainbat ikastaro iragarri ditu Hitz Ahok

Ikasturtea hasi da, eta ez ikasleentzat bakarrik. Aukeran, guraso lanetan hobe zeko moduko ikastaroak ere egon badira. Hitz Ahok horietako batzuk prestatu ditu. Orain da izena emateko epea. Joxe Amiamarekin nerabezaroan elkarbizitzaren gaia landuko da. Eta Nerea Mendizabalek aldiz, adin txikiagoan dauden haurren gurasoak atentituko ditu.



Ikastaroetan izena emateko aukera irekita dago.

“NERABEZAROA ETA ELKARBIZITZA” GURASO TAILERRA

Hizlaria: Joxe Amiama, psikopedagogo.

Metodologia: Teoriko-praktikoa.

Noiz: Astearteetan edo ostegunetan, 17:00-18:30 edo 17:30-19:00 ordutegian.

2013an: urriak 15, azaroak 5, abenduak 3.

2014an: urtarrilak 23, otsailak 27, martxoak 27, apirilak 8, maiatzak 22.

Nori zuzendua: LH5-LH6 eta DBHko gurasoak.

Lokala: Ikastola gorrian, ze-

hazteko oraindik.

Kuota: Ikasturte osoa 30 euro. Kontu zenbakia: 3035 014033 1400024098

Izen-ematea: zehaztu izen abizenak eta haurren izena emailez igorritako idatzian: kurtsoahitzaho@udarregi.com

“Guraso izaten ikasten: haurrekin batera hazi eta hezitzen”

Guraso izaten garen momentuan, gure haurra pertsona arduratsu eta zoriontsua izatea amesten dugu eta horrela izan dadin erakutsi egin nahi diogu dakigun eta daukagun onenarekin. Urteak eramaten ditugu ustez bizitzarako baliagarri izango zaizkigun ikasketetan denbora inbertitzen baina sarritan, guraso izateak ekartzen dizkigun egoerei aurre egiteko garaian galduta aurkitzen gara, eta inguruan aholku kontrajarriak inguratzen gaituzte. Ikastaro honek, funtsean, elkarren arteko komunikazioa hobetzea du helburu.

Maiz galdera hauek pilatzen dira: Zergatik jokutzen du horrela zure haurrak? Zer behar du? Zer da niretzat inportante dena eta ez dena kontuan

hartzen? Nola lagundu gure haurrari beregan ziurtasuna izaten? Nola lortu gure guraso paperean konfiantza?

IZEN-EMATEA

Irakaslea: Nerea Mendizabal psikopedagogo eta haur masajeko orientatzailea da ikastaroa zuzenduko duen aditua.

Noiz: ostegunetan: 17:00-18:30.

Non: Udarregi ikastolako eraikin gorrian (gela zehazteko dago).

Kuota: 30 euro, kontu zenbakian: 3035 0140 33 1400024098.

Izen-ematea: zehaztu haurren izen abizenak eta kurtsoa hitzaho@udarregi.com helbidera email bat idatziz.

Epea: irailaren 20etik 30era.

Antolatzailea: Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarte.



Nerea Mendizabal psikopedagogo.

Talde bat: 0-6 urte

Urriak 10, azaroak 14, abenduak 12, urtarrilak 9, otsailak 13, martxoak 13, apirilak 3, maiatzak 8

Beste taldea: LH1-4

Urriak 17, azaroak 21, abenduak 19, urtarrilak 16, otsailak 20, martxoak 20, apirilak 10, maiatzak 15.

Einean Guraso Eskolaren eskaintza

Ikastaroetako izen ematea irailaren 15ean amaituko da. Apuntatzeko, ikastaro bakoitzaren irakasleari deitu behar zaio.

LABOREAK

Astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Juani 609 413 883.

YOGA

Astean behin, 1,5 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
609 413 883.

BIODANTZA

Astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Ainhoa 656 745 031.

KARTOI-ALTZARIAK

Astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Mamen 626 605 007.

PINTURA

Astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Susana 609 413 883.

ESKULANAK

Astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Susana 609 413 883.

IDAZKETA KREATIBOA

Astean behin, 2 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Idoia 629 482 474.

SUKALDARITZA

Astean behin, 2 ordu.
Iraupena: 6 ordu.
Igor 670 410 273.

ZUMBA

Astean behin, 1,5 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Betisa 616 586 851.

SABEL DANTZA/HIP HOP

Astean behin, 1,5 ordu.
Iraupena: urria-ekaina.
Uarda 637 256 851.

Dantza Taldean izena emateko epea irekita dago oraindik



Gamarrako igerilekuan izan ziren irailaren 3an. Laster hasiko dituzte entseguak.

Dantza Taldea ere martxan izango da laister. Izen-ematea ekainean egin zen ikastolan, baina oraindik inork apuntatu nahiko balu dantzataldea@usurbil.com helbidera korreo bat idatziz egin dezake, ikaslearen izen-abizenak eta maila adierazita, irailaren 25a arte. "Ondoren, ikasturteko ordutegia zehaz-

teko bilera bat egingo dugu, irailaren 27an arratsaldeko 17.00etan Agerialdeko gimnasioan", Dantza Taldeko arduradunek aditzera eman dituztenez.

Iaz bezala, aurten ere helduentzako taldeak jarraitzeko asmoa du, "baina aurrerago emango dugu horren berri", oraindik zehazteko dituztelako hainbat kontu.

GAMARRAKO IGERILEKUAN

Aurreko ikasturteari amaiera emateko, irteera bat egin zuten duela bi aste Dantza Taldeko kideek. "Irailaren 3an asteartea, Gamarrako igerilekuan izan ginen 40 dantzari, urte guztian egindako lanaren ordain gisa", adierazi dituztenez. Argazkia irteera horretan eginikoa da.

Etumeta AEK, zabalik berriz ere

Euskara ikasten hasi, ikaske-tei segida eman edota perfila zein EGA tituluak prestatu nahi dituztenek, Kale Nagusia 43an, Zumarte Musika Eskola ondoan dute egoitza. Matrikulazio epea irekita dute; euskaltegi atea zabalik dago berriz ere. Eta honenbestez, prest dute ikastaro eskaintza ere; alfabetatze klaseak; lehen, bigarren edo hirugarren perfilak eta hirugarren perfilaren baliokide den EGA titulu prestatzeko aukera dago. Guztia, giro atsegin, parte

hartzaile eta dinamiko batean, elkarlanean, ondo paseaz.

Klaseetara joan ezin duenak, edo euskara ikasgelatik kanpo lantzen joan nahi duenarentzat ere badu eskaintzarik AEK-k; autoikaskuntza delakoa. 190 orduko lana, ikasturtean zehar etxean egiteko. Horren osagarri, autoikaskuntzaren bidea hautatzen duen ikasleak tutoretza zerbitzua aukeran izaten du astero euskaltegian, baita bi orduko mintzapraktika saioa ere. Mintzalagun egitasmoak ere

martxan jarraitzen du.

Beraz, mintzalagun izan nahi duenak, euskara ikasten hasi, hobetu edota euskarari loturiko ziurtagiriren bat eskuratu nahi duenak, Etumeta AEK-ra jo besterik ez du. Matrikulazio epea zabalik dago, ordutegi honetan: Astelehenetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

Informazio gehiago:

607 609 379
usurbil@ae.gov.es
muntteri.blogspot.com.es

V. Topa Eszenika, ate joka

Irailak 25, asteazkena

16:30-19:30 Tailerra Potxoenean: "Eszenarako idatzi, irudietatik abiatuta" (I). Bideratzailea: Oier Guillan. Matrikula: 5 euro.

20:15 Ikuskizuna Usurbilgo Gaztetxean: Jon Plazaolaren bakarrizketa komikoa. 3 euro.

Irailak 26, osteguna

16:30-19:30 Tailerra Potxoenean: "Eszenarako idatzi, irudietatik abiatuta" (II). Bideratzailea: Oier Guillan. Matrikula: 5 euro.

20:15 Ikuskizuna Sutegin: "Baltzen hioa (Begiradak)". 5 euro.

Irailak 27, ostirala

16:30-19:30 Tailerra Potxoenean: "Dantza garaikidea". Bideratzailea: Maider Oizartzabal. Matrikula: 5 euro.

17:30 Ikuskizuna Sutegin: "Maddi eta Anton (Zuondoan proiektuko antzerkia)". Sarrera: doan.

20:15 Ikuskizunak Sutegin: "Arroxalik ere, amets egiten du" (Aixalxa) eta Katusken Erreina (Bonbereneako antzerki taldea). 5 euro.

Irailak 28, larunbata

10:00-13:00 Tailerra Potxoenean: "Mugimenduak hitz bihurtzen direnean, hitza arnas, arnasa kolpe, kolpe gihar...". Bideratzailea: Miren Gaztañaga. Matrikula: 5 e.

15:30-18:30 Tailerra Potxoenean: "Aktorearen tresnak". Bideratzailea: Ander Lipus. Matrikula: 5 euro.

19:00 Ikuskizunak Sutegin:

-Kukuka Dantzaz-Blai.

-"Stereo" Miren Gaztañaga aktorearekin: Sarrera: 5 euro.

22:15 Ikuskizunak Sutegin: "Eskorbuto bat, berriz ere!" eta "Zer duzu, Amy (Oh, My God!)". Aktorea: Leire Ucha.

Oharrak: tailerretako plazak mugatuak izango dira (12-16 artekoak).

Izenematea:

topaeszenik@gmail.com

Antolatzaileak: Antzerki Ekintza eta EHAZE.

Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Bi ibilbide aukeran, irailaren 22ko Baxurde Krosean

Bat ez, aurten estreinakoz bi ibilbideren artean aukeratu ahal izango dute VI. Baxurde Krosean parte hartu asmo duten lasterkariak. 5,2 kilometro edo 10,75 kilometro luze dituenaren artean. Haurrentzako Baxurde Kros Txikia ere ospatuko da. Izen ematea ireki dute jada, www.kirolprobak.com atarian edo Oiardo Kirolegian. Aldez aurretik apuntatzen direnek 10 euro ordaindu beharko dituzte txip horiarenkin. Edo egunean bertan, 15 euro. Antolakuntzatik jakitera eman duten beste ohar bat; parte hartzea mugatua izango da. Hau da, asko jota, 350 lasterkarientzako lekua egongo da irailaren 22ko VI. Baxurde Krosean. Goizeko 11:00etarako finkatu dute irteera hitzordua, Mikel Laboa plazan. Helmuga, leku berean.

Amador Granados, hamahirugarren Kanadan

Gustura amaitu du usurbildarrak txirindularitza egokituko mundu mailako txapelketa. Podiumetik gertu, hiru segundora baino ez zen sailkatu Granados; hamahirugarrenean. Hamabos-



Idoia Ezeiza, iazko lehen usurbildarra.

garren postuan amaitu zuen, aurretik jokatu zuen erlojuz kontrako proban.

Artikutzara igandean

Igande goizeko 7:00etan abiatuko dira Oiardo Kirolegitik, asteazken hau baino lehen izena eman duten mendizaleek. Joan etorria autobusez egitekoak dira. Artikutza inguruetan 16 kilometroko ibilbidea osatu asmo dute.

Izen ematea, Futbol Eskolan

LH 3,4 eta 5.mailan ikasten ari direnentzat, hau da, 2003-2005 urte artean jaio zirentzako eskaintza prest du Usurbil FT-k. Izen emateko egunak finkatu dituzte, irailaren 17 eta 20rako, 18:00-19:30 artean Haraneko bulegoan. Denboraldi osorako ordaindu beharrekoa, 150 euro dira. Futbol Eskolan parte hartzeko, Eskola Kiroleko, Kiro-laz Josta edo Futbol-Eskubaloian izena emana eduk beharko du gaztetxoak. Usurbil FT-tik NOAUA!ri helarazi dioten beste ohar bat. Alebin federatu mailan jokatu nahi duten LH 6. mailako (2002. urtean jaiotako) mutilek, izen ematea irekia dute oraindik Haraneko bulegora gerturatuta, Futbol Eskolan apuntatzeko Usurbil FT-k finkatu dituen egun eta ordutegi berean.



Izen ematea irailaren 17an eta 20an izango da.

Zumba eta aerobik saio irekiak

Oiardo Kirolegian urtean zehar praktikatu daitezkeen bi kirol jardueri loturiko saioak antolatu dituzte larunbat honetarako, irailaren 14rako. Saio irekiak izango dira, herritar oro animatzen dute beraz, ariketa fisikoa sustatzea helburu duten hitzorduotan parte hartzera:

Irailak 14, larunbata

- **16:30-17:30 Aerobik.** Irakaslea: Izadi.
- **17:30-19:00 Zumba.** Irakaslea: Betisa. Dantza eta kirola uztartzen ditu zumbak eta due-la hamar bat urte sortu zen Hego Amerikan. Abestien %80 erritmo latinez osaturikoak dira (merengea, salsa, batxata, regeton, cumbiaton, txa-txa, hip-hop, funky).



Zumba ikastaroak ugaritzen ari dira azkenaldian.

Buruntzazpi Txirindulari Eskola ere martxan

Hasiberriak: Eskola Kiroletik kanpora dardenez, guraso edo arduradun batekin joan beharko dute. Larunbatetan goiz-pasak egingo dituzte Lasarte-Oriako Urbarkeko jolaslekuan, 10:00-11:00. Kuota: doan.

Alebin eta infantilak: Oiardo kirolegiko gihartze-gelan. 18:30etik 19:30era. Urteko kuota: 150 euro.

Kadete eta jubenilak: Eguneroko, Oiardo kirolegiko gihartze gelan. Urteko kuota: 150 euro.

Izen-ematea: Oiardo kirolegiko behekaldean dagoen gihartze gelan dira izena emateko orriak. Zikloturista edo lehiaketarako lizentzia federatua atera nahi duenak (hauen kasuan kuota ere, 150 euro) edo informazioa jaso nahi duenak email bat idatzi buruntzazpi@gmail.com helbidera.

Judo Klubekoak nazioartean ibili dira

Xabier Cazorla kadete mailako judokak Miamin ospaturiko munduko txapelketan parte hartzeko aukera izan du abuztuan. Usurbil Judo Klubeko 18 kide bestalde, abuztu amaieran Coimbran (Portugal) izan ziren. Beste bost judoka, Japonian entrenatzen. Usurbil Judo Klubeko kide gehiago ere Usurbildik kanpo ibili dira azkenaldian. Aiora Arrillagak esaterako, Castelldefelsen (Katalunia) nazioarteko entrenamendu saioetan parte hartu zuen uztailan. Paula Vicente, Itsasne Arruabarrena eta Nestor Laca berriz, Portugal aldean ibili dira, Santaramen.

Garaipenak

Ezin ahaztu uda partean lortu dituzten hainbat garaipen. Brontzezko domina bana irabazi zuten, Nerea Arrutik (-70 kg), Aiora Arrillagak (-48 kg) eta Egoitz Morak (-100 kg) Getafen ospaturiko Espainiako Txapelketan. Eta gertuago, Hernanin ospaturiko alebinen mailako Gipuzkoako Txapelketan ere, honakoa da Usurbil Judo Klubak eskuraturiko domina sorta:

Urrezkoa: Delia Medices (-30 kg), Paula Santa Maria (+52kg).

Brontzezkoa: Mario Rodriguez (-31kg), Ibai del Rincon (-37kg), Iker Lopez (-40kg), Ruben Perez (-44kg), Maddi Granados (-30kg), Leire Martinez (-42kg) eta Miriam Trimiño (+52kg).

Zilarrezkoa: Jonathan Martin (-31kg).

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefona: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanerako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanerako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonetako bat eskaintzen da,

jatorriz euskalduna, edozein lanerako. Helduak zaindu, sukaldian lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, internan moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Zubietan goizetan etxeko lanak egiteko egun erdiko lana eskaintzen da. 695 783 202 (arratsaldetan deitu)

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egun osoan, astelehenetik ostiralera. 943 550 550

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

BESTELAKOAK

8 urteko neska baten Oiarzun markako mendiko bizikleta falta da. More, arrosa, beltzeta txuri kolorekoa. Fuxia koloredun kaskoarekin. Aurkitzen baduzu, deitu: 635 755 666

Kolore more eta gris duden nesken-tzako bizikleta berria (Coluer) lapurtu zirela abuztuaren 31n arratsaldean, tren geltoki inguruan. Aurkitzen baduzu, deitu 689 769 282

3 urteko ume baten jolasteko motorra ahaztua utzi zen Irailaren 1ean Artzabal inguruan. Inork aurkitu badu: 607 48 45 97

Ajinagako artoa salgai 687706363

Teniseko raketa bat aurkitu da Erreka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Botilei tapoiak jartzeko enkortaxadora bat salgai, 100 euro. Asado-

re elektriko bat, 100 euro. 943361235

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Erromeri talde baterako, tronpetak eta tronboi jole bilagabiltza udan honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, esekigailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispi-lua, liburuak, haur jolasak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldean, 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arretra ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia ..	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkartea	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak irailak 12-irailak 22

Osteguna 12	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Ostirala 13	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Larunbata 14	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 15	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena 16	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteartea 17	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Asteazkena 18	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte

Osteguna 19	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Ostirala 20	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Larunbata 21	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Igandea 22	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Heriotzak

Jose Manuel Unanue Izaguirre 70 urterekin hil zen, irailaren 8an



Heriotzak

Antonio Almenara Ruiz 67 urterekin hil zen irailaren 1ean



Heriotzak

Aurora Iñarra Mugica 74 urterekin hil zen abuztuaren 15ean



Ohar, zorion-agur, jai edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

Agenda iraila

13 ostirala

- **Markeliñe Teatro Taldearen "Zoo-Zoom"** saioa. 17:00etan Santueneko frontoian. Ondoren txokolate-jana.
- **Masusta Kofradiaren Eguna.** 21:00etan Txirristra tabernan.

14 larunbata

- **Dantza mandingeen ikastaroko proba saioa.** 16:00-18:00, gaztetxean. Izen ematea, aurrez: 627285904 usurbilgogaztetxea@gmail.com
- **Elektrogaba gaztetxean,** egunean zehar.

15 igandea

- **Artikutzara irteera** 7:00, Oiardo kiroldegitik. Izena eman behar da aurretik. Informazio gehiago: andatza.com

"Zoo-zoom" antzezlan, Santueneko jaien atarian

Jaien atarian eta ikasturte berria abiatzeko antzerki emanaldia antolatatu du Santuenea Elkarteak auzoan bertan. Ostiral honetan, irailaren 13an, Markeliñe taldekoak datoz bertara, "Zoo-zoom" lana antzetzuko dute arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Ondoren, txokolate gozoa dastatzeko aukera egongo da.

Ikusleak antzele bilakatuko dira Markeliñe antzerki taldearen obra honetan. Haurrak izango dira interakzioz beteriko "Zoo-zoom" antze-laneko protagonistak.

Itsas kurkuilu baten soinuak emango dio hasiera obrari, Markeliñen prestatutako zooko atear irekita. Hitzik erabili gabe, erritmoaren eta mugimenduaren bitartez, ikuslea kontaktuzunean murgilduko da hasieratik. Pertsonaien



Ostiral honetan, 17:00etatik aurrera.

mugimenduak eta ikusleekin sortutako hartu-emanak izango dira ardatza.

"Zoo-zoom" ikuskizuna

Noiz: Irailak 13 ostirala, 17:00etan.
Non: Santuenean.

Afrikar dantzen ikastaroa

Afrikar dantza mandingeen ikastaroan trebatu nahi duenak irekita du izen emateko epea. 627 285 904 telefono zenbakira deitu edo usurbilgogaztetxea@gmail.com helbidera email bat idatzi dezake. Saioak asteazken arratsaldeetan izango dira, 19:00-21:00 artean (hilero, 28 euro). Ikastaroa, Gineako Pierre Cece Koly Camarak gidatuko du. Edozein kasutan, ikastaroan parte hartzen hasi aurretik proba egin nahi duenak aukera du irailaren 14an. 16:00-18:00 gaztetxean bertan.

Gaztelekua martxan berriz

Ikasturte berria abiatzear dute. Larunbat honetan, irailaren 14an, ongi etorri eguna antolatuko diote Gaztelekura hurbilduko den talde berriari; DBH 1ekoei, 16:00-17:30 artean. Bestalde, ikasturte berrian egoitzara hurbildu asmo duten gazteen gurasoentzako deialdia. Gurasoek eman beharko dute, seme-alaben izena. Apuntatzeko, astelehen, irailaren 16an, 18:30-19:30 artean Gaztelekura gerturatu beharko dute, izen emate orriarekin. Argibide gehiagorako: gaztelekua@usurbil.net

Datozenak

Larunbat honetan, Elektrogaba Gaztetxean

Irailaren 14an gauerdian hasi eta goizaldera arte luzatuko da Elektrogaba Usurbilgo Gaztetxean. Zarauztik etorriko dira Dj'elektropeña eta Dj'xanpo elektroaren ardatzetan mugituko den musika jartzera, honetaz gain sorpresak egongo dira gauean zehar eta partehartze zabalagoa espero da.

Irailaren 22an, Truke Eguna Txokoalden

Trukerako aukera berri bat izango da irailaren 22an igandea, Txokoaldeko Erroizpe elkarte parean. Beste urte batzuetan egin izan den bezalaxe, azokaren ondoren bazkari baten bueltan elkartuko dira partehartzaileak. Goizez ospatuko da Truke Eguna. Antolatzailea: Trukalariak.

Kantu Taldeko entseguak irailaren 24an hasiko dira

Kantu-jiran aritzen den taldea laster jarriko da martxan. Eta noski, euskal kantuak maite dituen orok atear irekita ditu. Usurbilgo Kantu Taldeak aditzera eman dutenez, irailaren 24an hasiko dira entseguak. Arratsaldeko 18:30ean Udarregi Ikastolan.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra
TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

aek

Euskara praktikoa



usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia, 45 behea.
20170 USURBIL

607 609 379
usurbil@aek.org



www.muntteri.blogspot.com.es

*Leheengo equuetik hitz egingo duzu,
erabileran oinarritutako metodologiari esker.*



Eskolak



Mintza
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio
planak



Titulu
homologatuak

aek

Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

eman izena

www.aek.org
902 362 294



IRAILLEAN



HURBILAGO
txartelarekin

10 eta 20€ko

erosketa baleak

Hurbilagoko txartelarekin ordaindutakoan, datafonoko tikean azalduko zaio sarituari bere erosketa-saria.

10 edo 20 euroko saria,

Hurbilagoko edozein establezimendutan erabili ahal izango da 2013ko urriaren 31era arte.



hurbilag

Usurbil
osasura atez atez



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO